




EAEko etxebizitza hutsak eta udal-mailako mobilizazio-programen azterketa

Txostenak etxebizitza hutsen inguruko arazoaren diagnostiko eguneratua egiten du EAEn, eta, horrelako etxebizitzak mobilizatzeko programa egokiei begira, etxebizitza horiek aurkitzeko zailtasunen berri ematen du.

[Txosten osorako sarbidea](#)

EAEn 86.325 etxebizitza hutsik daude, hau da, etxebizitza-parkearen % 8,3




%1,3 behera egin du

Etxebizitza hutsen eboluzioa


EAEko etxebizitza hutsen kopuruak behera egin du 2013tik 2015era bitartean: 1.100 gutxiago, hain zuzen. 2015ean, etxebizitza-parke osoaren % 8,3 dago hutsik, 2013an baino pixka bat gutxiago (% 8,5).

Etxebizitza hutsak: jenderik gabekoak eta sasoikoak

Etxebizitza hutsak bi motatakoak izan daitezke: sasoiko etxebizitzak eta jenderik gabe daudenak. EAEko 86.325 etxebizitza hutsetatik, % 68 (zehazki, 58.697) jenderik gabe daude (EAEko etxebizitza-parkearen % 5,6). Gainerakoak, 27.628 etxebizitza, sasoikoak dira (hau da, etxebizitza-parkearen % 2,7).



Lurralde Historikoaren arabera: Etxebizitza hutsen kopurua ezberdina da lurraldearen arabera. Hala, Araban (% 11,0) gehiago dira Gipuzkoan (% 8,9) eta Bizkaian (% 7,1) baino.



Udalerrien tamainaren arabera Lotura zuzena dago etxebizitza hutsen kopuruaren eta udalerrien tamainaren artean: zenbat eta handiagoa izan udalerria, orduan eta txikiagoa da etxebizitza hutsen kopurua. Hala, 2.500 biztanletik beherako udalerrietan, etxebizitza-parkearen % 20,6 dago hutsik; 2.500 eta 10.000 biztanle bitarteko udalerrietan, berriz, % 11,6 dago hutsik, eta 20.000 biztanletik gorakoetan % 9tik behera. Etxebizitza Hutsei buruzko Estatistikaren (EHE) datuen arabera, ezberdintasun horien arrazoi nagusia sasoiko etxebizitzak dira.





Zenbat etxebizitza huts mobiliza litezke berehala?

EHEak "etxebizitza kudeagarriaren" kontzeptua erantsi du. Etxebizitza horiek, hutsik egonik ere, ez dira bigarren edo sasoiko etxebizitza gisa erabiltzen eta ez daude salgai edo alokatzeko merkatuan. Etxebizitza horiek berehala mobiliza litezke EAeko etxebizitza-merkatuan eskaintzeko.

35.647 etxebizitza kudeagarri: Bada, 2015ean, guztira 35.647 bat etxebizitzak betetzen dituzte baldintza horiek eta, beraz, kudeagarriak dira, etxebizitza hutsak mobilizatzeko diseinatu eta ezarritako programa eta neurrien ikuspegitik.

Bilakaera: 2013ko kopuruarekin alderatuta, % 11,5 jaitsi da EAEn etxebizitza kudeagarrien kopurua. Horrela, erabat aldatu da krisialdi ekonomikoaren hasieratik aurrera erregistratu zen gorako joera indartsua.



Lurralde Historikoaren arabera: 2015ean, mobiliza litezkeen etxebizitzaren kopururik handiena Bizkaian dago. 2013. urtetik aurrerako bilakaera aztertzen badugu, etxebizitza huts kudeagarrien kopuruak behera egin duela ikus dezakegu, batez ere Araban (-% 33,3) eta Gipuzkoan (-% 20,7). Bizkaian, berriz, nabarmen egin du gora (% 11,1).

Udalerrien tamainaren arabera: Udalerri txikienek (2.500 biztanletik beherakoek) etxebizitza kudeagarrien ehunekorik handiena dute (% 5,0). Eta handienek (40.000 eta 100.000 biztanle bitartekoek) ehunekorik txikiena (% 3,2).

Udalerrietan etxebizitza hutsak aurkitzeko proiektu eta ikerketak

Udal batzuek etxebizitza hutsak aurkitzeko ikerketak egin dituzte, administrazio-iturriak (biztanle eta etxebizitzaren errolda eta beste iturri eta erregistro batzuk) optimizatuz, inbentarioak eginez eta abar. Adibidez: Leioak, Balmasedak, Ugaok, Bilbok...

Beste udal-esperientzia batzuk:

Txostenak eredu britainiarra aztertzen du, arau, erakunde eta finantza esparru egokia baitu. Tokiko gobernu bakoitzak, bere egoeraren arabera, finantza-laguntzak eta diru-laguntzak eman ditzake (pizgarri positiboak) baita zerga-kargak eta bestelako neurri hertsatzaile nahiko gogorak ere. Era berean, Kataluniako [Habitat 3](#) fundazioaren esperientzia aipatzen da, arlo horretan lankidetzak publiko-privatua bultzatzeko aukera dagoela erakusten duelako.

Metodologia: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako Etxebizitza Hutsei buruzko Estatistika (EHE).

Beste iturri batzuk: udal-arduradunei egindako kontsultak eta elkarrizketak.